# Literaturia2015 - Ekitaldiak

## Maiatzaren 14an (osteguna)

**Literaturia 2015aren aurkezpena** eta Bernardo Atxagaren hitzaldia.......... 19:00
Jose Luis Padronek aurkeztua, Garoa liburu-dendan. Doan

## Maiatzaren 28an (osteguna)

**'Zentzumenen zoramena' ekitaldia**, Talaiberri txakolindegian........................ 20:00
Katixa Agirre, Oier Santos, Gaizka Zabarte eta Tere Irastortzaren azken lanak lurrin usainez eta txakolin zaporez dastatzeko parada. 10 euro

## Maiatzaren 29an (ostirala)

**Literaturia 2015aren irekiera**, Anjel Lertxundiren eskutik, Modelo aretoan...... 19:30

**'Porto ikuskizuna'**, Harkaitz Cano eta Mursegoren eskutik, Modelo aretoan..... 20:00
In vino, veritas. Baina umorerik gabe, zertarako balio du egiak? 3 euro
Bertso berriak, uzta oneko ardoari jarriak.

## Maiatzaren 30ean (larunbata)

**Liburu azoka** Zigordia kalean (udaletxe aurrean).......................... 11:00 - 14:30
Goizez eta arratsaldez, liburu aurkezpenak Garoa liburu-dendan. 17:00 - 20:00

**Poesia azpititulatzeko tailerra**, ................................................................ 10:00
Udaletxean. Doan

**'Erractus' ikuskizuna**, Danele Sarriugarte, Jule Goikoetxea...................... 12:00
eta Kattalin Minerren eskutik, Modelo aretoan. 3 euro.
'Erraiak' eta 'Tractatus' liburuen juntadizotik sortutako errezitaldia.

**Azpititulatutako poesien emanaldia**, Garazi Arrulak aurkeztua, Modelo aretoan... 13:00
Doan

**'Ardoa eta Odola (Wino I Crew)' ekitaldia**, Modelo aretoan.................... 17:00
Hala Bedi irratiko Celosamente Gordea saioak, Jim Jarmusch-en 'Dead man' filma bidelagun hartuta, Napoka Iria eta Joseba B. Lenoir musikariekin batera sortutako ikuskizuna. 3 euro

**'Mormoien bisita (Nora Barnacleren omenez)' ekitaldia**, Modelo aretoan... 19:00
Edorta Jimenezek James Joyce idazlearen emazte Nora Barnacle izango du ardatz, AurresQ taldearen doinuez eta dantzez lagunduta. 3 euro

**Poteo literarioa** Jon Alonsorekin, Musika Plazatik abiatuta....... 20:00/Doan

**Bertso-kata literarioa**, Putzuzulo gaztetxean. Sommerlierrak:................. 22:00
Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Iñigo Manzisidor 'Mantxi'. 3 euro

## Maiatzaren 31n (igandea)

**Liburu azoka** Zigordia kalean (udaletxe aurrean)......................... 11:00 - 13:30
Goizean zehar, liburu aurkezpenak Garoa liburu-dendan.

**'Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako' ikuskizuna**....................................... 11:30
Dejabu Panpin Lab1rat3giaren eskutik, Modelo aretoan. Doan
Gonbidapenarekin (aforo mugatua). Joseba Sarrionandiaren izen bereko ipuin liburuan oinarrituta sortutako ikuskizuna da, 3 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendua.

**Hiruko solasaldia** Arantxa Urretabizkaia, Karmele Jaio eta.................. 12:30
Arantxa Iturberekin, Modelo aretoan. Hiru idazle oholtza gainean, literaturaz solasean, eta oro har bizitzaz, heriotzaz, maitasunaz, adiskidetasunaz... baita Doan

**Vermut literarioa** Mikel Pagadizabal Pagadi-rekin, Musika Plazatik abiatuta.. 13:30/Doan

**'Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa' ikus-entzunezkoaren proiekzioa**...............17:00
Ondoren, **Itxaro Bordaren errezitaldia**, Itxaso Gutierrez musikariak lagunduta, Modelo aretoan. Aitor Gametxo, Maider Fernandez Iriarte eta Maria Elorzaren film laburra, eta jarraian, Bordaren boza, Gutierrezen gitarra elektrikoak harilkatuta. 3 euro

## Erakusketak

Irakurketa-gela: Ramon Serrasen argazki-erakusketa.
Modelo aretoan (maiatzaren 29tik 31ra)

Idazkera isilak: Xabi Erkiziak liburu eta irudietatik erauzitako soinuekin.
Arte eta Historia Museoan (maiatzaren 14tik 31ra)

## Sarrerak eta bonoak

Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira leihatilan.
Bonoak 12,00 euroan jarriko dira salgai, eta ekitaldi guztietarako balioko dute, txakolindegiko saiorako izan ezik. Bonoak Sanz Enea Kultur Etxean eta Garoa liburu-dendan eskuratu daitezke aurretik. Horrez gain, bonoa erreserbatzeko aukera dago, literaturia2015@gmail.com posta elektronikora idatzita.





literaturia.eus

Zarauzko Udalaren babesarekin

KULTURA ZARAUTZ

ZARAUZKO UDALA

Laguntzaileak: Zarauzko Udala, Garoa liburu denda, Talai Berri Txakolina, Berria, Karrikiri, Txiki-Polit, Putzuzulo Amets Fabrika, Monte Albertia, Arrano Kabia Kultur Elkartea, Ramon Serras, CAF-Elhuyar sariak

Euskal Letren Plaza Zarautzen

# literaturia
## 2015

odolean daramagu